



Berriatua Edadetuekin Herri Lagunkoia
Diagnostikoa



Berriatuko Udala

2022

Aholkularitza teknikoa



Zelaia.arrantxu@gmail.com

Laguntzailea



AURKIBIDEA

ATARIKOAK	1
BERRIATUA LAGUNKOIA	2
HELBURUA.....	2
<i>Helburu orokorra</i>	2
<i>Faseak</i>	3
METODOLOGIA	4
DIAGNOSTIKOA OSATZEKO URRATSAK	5
<i>Datu bilketa bigarren mailako iturrietatik</i>	6
<i>Eztabaida taldeak</i>	6
<i>Inkesta</i>	8
<i>Komunikazioa</i>	8
DIAGNOSTIKOA: BERRIATUA DATU OROKORRAK	9
DATU OROKORRAK.....	9
<i>Demografia</i>	10
<i>Eraikinak eta aire zabaleko guneak</i>	11
<i>Ibilgailuak</i>	11
<i>Etxebizitza</i>	12
<i>Gizartean parte hartzea</i>	15
<i>Komunikazioa eta informazioa</i>	16
<i>Gizarte Zerbitzuak eta osasunekoak</i>	16
DIAGNOSTIKOA: INKESTA ETA EZTABAIDA TALDEEN EMAITZAK	20
BERRIATUA OROKORREAN.....	26
ERAIKINAK ETA AIRE ZABALEKO GUNEAK	27
<i>Bide seinaleak eta abiadura</i>	28
<i>Argiak eta segurtasuna</i>	30
<i>Eraikinak eta aire zabaleko guneak: ekarpenak</i>	31
GARRAIOA	33
<i>Garraio arloko ekarpenak</i>	34
ETXEBIZITZA.....	35
<i>Etxebizitza arloko ekarpenak</i>	36
BEGIRUNEA ETA GIZARTERATZEA	37
<i>Begirunea eta gizarteratze arloko ekarpenak</i>	38
GIZARTEAN PARTE HARTZEA	39
<i>Gizartean parte hartzea arloko ekarpenak</i>	40
KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA	41
<i>Komunikazioa eta informazioa arloko ekarpenak</i>	42
LANA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA	43
<i>Lana eta Herritarren Parte Hartzea arloko ekarpenak</i>	44
GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNEOAK.....	45
<i>Gizarte zerbitzuak eta osasunekoak arloko ekarpenak</i>	46
AURRERA BEGIRAKOAK	47



ATARIKOAK

Berriatuko udalak konpromisoa hartuta dauka Berriatua bizitzeko leku egokia izan dadin. Horretarako, entzun egin behar da, denen ikuspuntuak jaso; ume, gazte eta, zeresanik ez, adinekoena.

Gure herrian eta eskualdean, gero eta edadetuagoa da jendea; adin tarte horretakoek gero eta pisu esanguratsuagoa daukate gizartean. Eta gure helburua da herritarrak nagusitzen joan ahala ahalik eta herri lagunkoiena eta irisgarriena edukitzea.

Norabide horretan ekin diogu azken hilabeteetan diagnostikoa egiteari, edadetuen euren ikuspuntutik, eurek dakite-eta non dauden premiak eta non eragin behar den. Horretan oinarrituta, ekintza plana diseinatuko da, eta udalak bere gain hartuko du hori gauzatzeko ardura.

Adinekoekin lagunkoi izan nahi badugu, egiturak eta zerbitzuak banakoen behar eta ahalmenetara egokitu behar ditugu, eurei ahotsa emanda. Horrela lortuko dugu herri lagunkoi bat.

Zeregin ederra da, eta horretan bidelagun izango da udala.

Eskerrik asko parte hartu duzuen eragile guztioi. Aurrerantzean ere udalaren ateak zabalik edukiko dituzue.

Jon Arriola

Berriatuko alkatea



BERRIATUA LAGUNKOIA

Proiektu honen bidez, udalerriko adinekoei parte hartzeko esparru bat eman nahi zaie, parte-hartze aktiboa eta osasungarria ahalbidetzen duten inguruko elementuak zein diren zehazteko. OMEren "Hiri Adeitsuak Adinekoekin" programa eta bertan jasotzen diren irizpideen arabera garatu dugu ondoren zehazten den programa. Proiektua garatzeaz batera, Dublingo adierazpena onartu du Berriatuko Udalak.

Proiektu honekin edadetuek eurak protagonista bihurtu eta hitza eta lekua ematea lortu nahi da; euren errealitatearen pertzepzioa ezagutu eta definitzea, alegia, definizio horietatik abiatzeko udalerrian hartuko diren erabaki politikoak.

HELBURUA

HELBURU OROKORRAK

1. Edadetuek gizarte bizitza eta dinamikako alderdi guztietan presente izatea eta parte hartzea sustatu eta bideratzea epe ertaineko ikuspegiarekin.
2. Edadetuen bizi kalitatea hobetzea eta, ondorioz herri osoarena.
3. Berriatua edadetuentzat herri adeitsuagoa izan dadin sustatzea.

HELBURU ESPEZIFIKOA

- ✓ Adinekoak komunitatearen parte diren sentimendua, haien partaidetza eta jokabide prosozialak areagotzea.
- ✓ Komunitateek beren buruari adinekoen ikuspuntutik begiratu diezaioten sustatzea, identifikatzeko zer arlotan eta modutan izan daitezkeen adeitsuagoak haiekin, zahartzaro eta zahartzearen inguruan dauden irudi negatiboen aurka egiteko.
- ✓ Komunitateak zahartze aktiboa ahalbidetzen duten espazioak izateko ekintza eraldatzaileak identifikatu eta abiaraztea.
- ✓ Arlo honetan zeresana duten eragileek (ordezkari politikoak, teknikariak eta komunitatea bera) konpromiso hau har dezaten lortzea: identifikatutako ekintza eraldatzailea abiaraztea adinekoek komunitatearen bizitzan duten potentziala erabiliz.
- ✓ Proiektuaren bultzagile bezala pertsona nagusien protagonismoa bermatzea eta prozesu osoaren garapenean bere lana iraunkorki laguntzea.
- ✓ Berriatua edadetuekin herri lagunkoia izateko ekintza plana definitzea.



FASEAK

Hauek dira OMEK zehaztutako faseak hiri adeitsuentzat, eta proiektu honetan ere fase horiek jarraituko dira.

LEHENENGO FASEA (1-2 URTE)

Mekanismoak sortzea, adinekoek parte har dezaten lortzeko.

Hasierako ebaluazioa, herria adinekoei nola doitzen zaien aztertzeko.

Herri osoan aplikatzeko hirurteko ekintza-plan bat egitea, hasierako ebaluazio horren emaitzak kontuan hartuta.

Egindako aurrerapausoak hautemateko adierazleak identifikatzea.

BIGARREN FASEA (3-5 URTE)

OMEri hiru urterako ekintza-plan bat aurkeztea. Lehenengo fasea bete denean, eta Sareari atxiki zaionetik bi urte igaro baino lehen, hiriak ekintza-plana aurkeztu behar du OMEk azter eta onar dezan. Behin haren oniritzia jasota hiru urteko epea izango du ekintza-plana gauzatzeko.

HIRUGARREN FASEA

Aurrerapausoak ebaluatzea (bosgarren urte bukaeran). Hirian egindako aurrerapausoei buruzko txostena aurkeztuko zaio OMEri, erakunde horrek ebalua dezan.

LAUGARREN FASEA

Etengabeko hobekuntza.

Hasierako ekintza-planean jasotako arteen hobekuntzak izan direla erakusten duten frogak sinesgarriak badaude, herria etengabeko hobekuntza-fasera pasako da. Hau da, hiri adeitsuak bost urterako plana egingo du, eta aurrerantzean ere berdin jardungo du, hau da, bost urterik behin plan bat egingo du, etengabeko hobekuntza bermatze aldera. Hiriak Sareko kide izaten jarraitu ahal izango du, baldin eta hobetzeko ekintza-planak egiten jarraitzen badu.



METODOLOGIA

Vancouverreko Protokoloak proposatzen duen ikerketa diagnostikorako metodologia jarraitu dugu proiektu honetan. Protokolo estandarizatu horrek eztabaida taldeetarako oinarria eta gidioa eman du; eta inkestetarako Euskadi lagunkoia garatutako lagunkoitasun galde-sorta oinarri hartu eta egokitu egin dugu. Ondorioz aintzat hartu ditugun alderdiak hauek izan dira:

ERAIKINAK ETA AIRE ZABALEKO GUNEA

- Igarotzeko tokien egokitzapena, iristeko erraztasuna, argizatzea.
- Berdeguneetara, paseatzekoetara, elkarrekin egotekoetara iriste erraztasuna izatea: bankuak egutera eta itzalean dauden tokiak egotea, mugikortasuna bultzatzen duten ibilbide seguruak izatea.

GARRAIOA

- Komunikazioa beste hirigune batzuekin zerbitzu eta horniduretarako.
- Garraioa udalerraren barnean, bizilagunen sareak, ohiko hornidurak...

ETXEBIZITZA

- Etxebizitza egokitzea, iriste erraztasuna, erosotasuna eta segurtasuna.

BEGIRUNEA ETA GIZARTERATZEA

- Harremanak auzokoekin.
- Biztanle gehiago/*gutxiago* egon litezkeen urte sasoiarako harremanak.
- Elkarri laguntzea.
- Babes sozialerako sareak.

GIZARTEAN PARTE HARTZEA

- Aisia antolatzeko guneak eta/edo jarduerak (aire zabalean edo guneetan).
- Aldaketak klimarengatik eta urteko sasoiarengatik.

KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

- Kanpoko informazioa eskuratzea (prentsa, telebista, irratia...).
- Udalerriko informazioa eta zerbitzu bereziak eskuratzea.
- Internetera sarbidea izatea, banda zabal unibertsalaren bidez. Satelite bidezko konexioa.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA ENPLEGUA

- Babes sozialeko eta boluntariotzako jarduera antolatuak eta ez-formalak.

GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNEKOAK

- Osasun zerbitzuak eskuratzea. Erraztasuna eta azkartasuna.



GARRAIOA



ETXEBIZITZA



**PARTAIDETZA ETA
EHUN SOZIALA**



**ERRESPETUA
ETA INKLUSIOA**



**HERRI PARTAIDETZA
ETA ENPLEGUA**



**KOMUNIKAZIOA ETA
INFORMAZIOA**



**OSASUN ETA
GIZARTE
ZERBITZUAK**



**KANPOKO
GUNEAK ETA
ERAIKUNTZAK**

DIAGNOSTIKOA OSATZEKO URRATSAK

Proiektuaren garapenean izan diren urrats nagusiak:

1. Talde eragilea eratzea.
2. Datu bilketa orokorra bigarren mailako iturrietatik.
3. Aurrediagnostikoa
4. Edadetuen parte hartze taldea
5. Zaintzaileen parte hartze taldea
6. Inkestak herritar edadetuei.



7. Inkestak zerbitzu/denda/taberna arloko profesionaleri
8. Proiektuaren komunikazioa eta dinamizazioa.
9. Diagnostiko txostena osatzea

DATU BILKETA BIGARREN MAILAKO ITURRIETATIK

Udalerriari buruz eskuragarri dagoen informazio guztia biltzea izan da helburua, bai alderdi soziodemografikoei buruzkoa, bai tartean diren agenteei eta garatzen ari diren programei buruzkoa.

Erabilitako iturriak hauek izan dira: Berriatuko udala, Eustat, Udalmap, INE eta Lea Artibaiko Amankomunazgoko 2021eko memoria.

EZTABAIDA TALDEAK

PARTE HARTZE TALDEA

Jone	Espilla Urizarbarrena	1957
Rodolfo	Bakeriza Fernandez	1951
Miren	Arrizabalaga Arrizabalaga	1956
Gotzone	Espilla	1949
Mari	Uriarte	1950
Jabier	Azumendi	1955
Pedro	Gandiaga	1951
Mari Karmen	Gorostola Ajuria	1950
Teodoro	Bilbao Laka	1944
Jon	Arriola Espilla	1982
Abel	Aristondo Urresti	1974



OSASUN /GIZARTE ARLOKO PROFESIONAL ETA ZAINTZAILEEN EZTABAIDA TALDEA

Profesional eta zaintzaileen eztabaida talde honetako ordezkaritza hau izan zen:

Maria Pilar	Elustondo Kalzakorta	69
Eba	Galdos	52
Isabel	Garcia-Salazar	55

INKESTA EDADETUEI

Herriko edadetuei inkesta egin zaie Berriatuaren lagunkoitasun mailari buruzko ezagutza handiagoa izateko. Lagunkoitasun aldagaietan oinarrituta talde eragilean adostu ziren inkestaren edukiak eta ohiko egitura bertakotu egin zen..

Inkesta ethez etxe igorri zen eta edadetuen elkartean edo udalean entregatu ahal izan zuten.

- Adina
- Generoa
- Bizitokia/kalea

INKESTA ESTABLEZIMENDUEI (OSTALARITZA, MERKATARITZA, ZERBITZUAK) INKESTA

Herriko merkatar, ostalari eta jendaurreko zerbitzuei inkesta bana igorri zaie establezimenduaren lagunkoitasun maila neurtzeko.

KOMUNIKAZIOA

Bai edadetuei, bai udalerriko biztanleei, proiektu honen inguruko komunikazioa hedatzea ezinbestekoa da bere helburua lortzeko eta aurrerabidean zehaztutako pausoak eman ahal izateko. Horretarako udalaren komunikazio bitartekoak (bandoa, gutunak, udal aldizkaria eta udalaren sare sozialak), eskualdeko komunikabideak eta whatsapp taldea izan dira erabilitako bitarteko nagusiak. Irudia eta komunikatzeko modua zaintzeko proiektu honi lotutako logoa diseinatu da.



DIAGNOSTIKOA: BERRIATUA DATU OROKORRAK

DATU OROKORRAK

BERRIATUA		
Biztanleria	2021	1.244
Biztanle-dentsitatea: Bizt/Km2	2021	65,06
Azalera: Ha	2021	1.913
65 urte eta gehiagoko biztanleria: %	2021	22,51
Atzerrian jaiotako biztanleria: %	2021	16,96
Goi-mailako ikasketadunak: %	2020	12,08
Euskaldunak: %	2016	79,23
Langabezi tasa: %	2020	9,6
Enplegua establezimenduetan	2021	1.146
Zoru urbaniza ezina: Udalerriaren azaleraren %	2021	95,92
Famili-etxebizitzak: Batezbesteko azalera. M2	2020	118,8
Biztanleko BPGa: Euroak	2019	81.841
Udal BPGa: Euskadi=100	2019	226
Jarduera ekonomikoa. Industria: BEGaren %	2019	75,1
Jarduera ekonomikoa. Zerbitzuak: BEGaren %	2019	20,2
Jarduera ekonomikoa	2019	1,2
Jarduera ekonomikoa. Lehen sektorea: BEGaren %	2019	1,4
Errenta pertsonala: 18 urtez gorakoak. Euroak	2019	17.580

1. Taula. Datu orokorrak. Iturria: Eustat


DEMOGRAFIA

Biztanleriaren zahartzea gero eta handiagoa dela erakusten dute datuek eta datozen hamarkadetan areagotu egingo da joera hori, hala ere, Berriatuko zahartze indizea eskualde probintzia eta autonomia erkidekoaren azpitik dago, % 22,40 zen 2021ean.

	Urtea	Berriatua	Eskualdea	Bizkaia	EAE
Biztanleriaren urte arteko aldaketa (%)	2021	-1,51	-0,35	-0,44	-0,29
Biztanleriaren aldaketa azken hamarkadan(%)	2021	-1,98	-1,97	-0,12	1,34
Zahartze-indizea: 65 urte eta gehiagoko biztanleak (%)	2021	22,40	24,41	23,25	22,80
Gainzahartze-indizea: 75 urte eta gehiagoko biztanleak(%)	2021	10,47	12,74	11,86	11,52

2. Taula. Demografia. Iturria: Udalmap Eusko Jaurlaritz eta Eustat EAEko biztanleria

Hau da Berriatuko herriaren adin piramidea



40. Grafikoa. Adin piramidea. Iturria: Egileak egina Eustateko datuekin



ERAIKINAK ETA AIRE ZABALEKO GUNEA

Berriatuko eremu berde eta gune babestuen azalera ingurukoa baino handiagoa da, eskualdekoa baino hamar puntu handiagoa.

EREMU BERDEAK ETA GUNE BABESTUAK	Urtea	Berriatua	Eskualdea	Bizkaia	EAE
Babes bereziko udal-azalera (%)	2021	23,01	13,03	19,58	23,60

3. Taula. Eremu berdeak. Iturria: Udalmap

2020an ez zen ibilgailuek harrapatutako oinezkorik izan Berriatuan, hala ere, trafiko istripuen indizea oso handia da, bai inguruarekin, bai probintziarekin, nahiz autonomia erkidegoarekin alderatuta; eskualdeko indizea hirukoiztu egiten du.

Mila biztanleko delituen indizea eskualdekoa eta EAEkoa baino handiagoa da, baina Bizkaikoa baino txikiagoa da.

	Urtea	Berriatua	Eskualdea	Bizkaia	EAE
Ibilgailuek harrapatutako oinezkoak erregistraturiko istripuetan (10.000 biztanleko)	2020	0,00	1,91	2,64	2,94
Erregistratutako trafiko istripuak (%biztanle)	2020	15,29	5,06	2,49	3,37
Udaltzaingoaren hornidura (%biztanle)	2021	0,00	1,11	1,54	1,47
Delituen indizea (%biztanle)	2021	37,84	30,07	41,57	37,40

4. Taula. Segurtasuna. Iturria: Udalmap

IBILGAILUAK

2020ko datuaren arabera biztanleko 0,92 ibilgailu zeuden Berriatuan, aise gainditzen du inguruko batez bestekoa.

	Urtea	Berriatua	Eskualdea	Bizkaia	EAE
Ibilgailu parkea (ibilgailuak/biztanleko)	2020	0,92	0,64	0,60	0,62

5. Taula. Ibilgailuak. Iturria: Udalmap



GARRAIO PUBLIKOA

↪ Auzotaxia

Auzoetatik Berrituko erdigunera jaisteko Auzotaxi zerbitzua eskaintzen du Berriatuko udalak. Auzo taxia edozein zerbitzutarako erabil daiteke bezperan taxi gidariarekin hitzordua adostuta.

↪ Autobus lineak

○ Bizkaibus

A3915 Linea: Ondarroa - Berriatua – Markina – Durango – Bilbao (Autopistaz)

A3916 Linea: Ondarroa – Berritua – Markina – Ermua – Bilbao (Autopistaz)

○ PESA

Lekeitio – Ondarroa – Donostia

↪ Erreferentziazko ospitalera denbora

Erreferentziazko ospitalera (Galdakao-Usansolo Ospitalea) joateko batez besteko denbora: 35 minutu autoz (Iturria: Google maps). Ospitalerik hurbilenera (Mendaroko ospitalea) joateko batez besteko denbora 27 minutu autoz (Iturria: Google maps)

ETXEBIZITZA

Berriatuko udalerriak etxebizitza dentsitate ertaina du, eskualdekoa, Bizkaikoa, nahiz EAEkoa baino txikiagoa da. Hutsik dauden etxebizitzaren indizea aldiz, ingurukoa, probintziakoa, nahiz EAEkoa baino handiagoa da.

Etxebizitza parkearen antzintasuna ez da handia, inguruko eta probintziako azpitik baitago. Azken urteotan ez da babes ofizialeko etxebizitzarik egin eta Etxebiden izena emanda daudenen batez bestekoa eskualdekoa baino handiagoa da.

	Urtea	Berriatua	Eskualdea	Bizkaia	EAE
Bizitegi-lurzoruko etxebizitza-dentsitatea (etxebizitzak/bizt)	2020	29,88	46,02	52,11	48,60
Hutsik dauden familia-etxebizitzak (%)	2011	15,97	14,08	10,49	11,40
50 urtetik gorako antzintasuna duten familia-etxebizitzak (%)	2020	33,27	40,09	42,68	37,59

Familia-etxebizitza nagusien konfort-indizea	2011	67,80	65,80	70,20	72,00
Familia-etxebizitza nagusiak, aurrigoeran, egoera txarrean edo egoera txarrean dauden eraikinetan (%)	2001	2,02	2,06	5,87	8,66
Etxebiden dauden etxebizitzen eskaerak (0/00 biztanleko)	2021	36,52	21,82	54,44	51,89
Azken bosturtekoan amaitutako etxebizitza babestuak (BOE) (0/00 biztanleko)	2021	0,00	0,00	4,01	2,80
Hiri-lurzorua (%)	2021	1,44	1,41	5,05	3,80
Bizitegi-azalera urbanizagarria (%)	2021	0,00	6,80	11,97	12,09
Biztanleria-dentsitatea (bizt./Km2)	2021	64,4	126,34	521,09	312,04

6. Taula. Etxebizitzak. Iturria: Udalmap

ETXEBIZITZEN EZAUGARRIAK

Berriatuko etxebizitza gehienak hornituta daude berokuntza sistema eta telefono linearekin.

	Berriatua	
Guztira	2016	427
Bainugelarekin	2016	422
Bainugelarik gabe	2016	5
Berokuntza zentrala	2016	107
Banakako berokuntza	2016	185
Noizean behingo berokuntza	2016	118
Berokuntzarik gabe	2016	17
Telefono linearekin	2016	423
Telefono linearik gabe	2016	4
Tutu bidezko gasa eraikinean	2016	280

Tutu bidezko gasik gabe eraikinean	2016	147
Tutu bidezko gasa etxebizitzan	2016	150
Tutu bidezko gasik gabe etxebizitzan	2016	277

7. Taula. Etxebizitzan ezaugarriak. Iturria: Eustat (2016)

Metro karratu askoko etxebizitzak dira nagusi Berriatuan, eta etxebizitzan %31k du igogailua.

ETXEBIZITZA	ALDIA	BALOREA
Guztira	2016	561
10-60 m2	2016	20
61-90 m2	2016	230
91-120 m2	2016	154
121-150 m2	2016	57
>= 151 m2	2016	100
1-3 logela	2016	21
4 logela	2016	45
5 logela	2016	268
6 logela	2016	95
>= 7 logela	2016	132
1 bainugela	2016	344
2 edo bainugela gehiago	2016	202
Bainugelarik gabe	2016	15
Igogailuarekin	2016	173
Igogailurik gabe	2016	388

8. Taula. Etxebizitzan ezaugarriak 2. Iturria: Eustat (2016)



ETXEBIZITZEN EDUKITZE ERREGIMENA

Jabetzan du etxebizitza berriatuarren %81ak, eta alokairuan %15ak.

EDUKITZE-ERREGIMENA	ALDIA	BALOREA
Guztira	2016	427
Jabetzan	2016	347
Alokairuan	2016	66
Beste era batzuetan	2016	14

9. Taula: Etxebizitzen edukitze erregimena

GIZARTEAN PARTE HARTZEA

Anaitasuna jubilatuen elkarte dago Berriatuan eta bere egoitza du udalak utzitako lokalean. Anaitasunak hainbat ekintza antolatu ohi ditu urtean: irteerak, ikastaroak, bazkariak...

Bestalde, elkarte kopuru handia dago Berriatuan. Hauek dira Berriatuko elkarteak.

- Anaitasuna jubilatuen Elkarte
- Berriatuko Herri Ikastetxeko Guraso Elkarte
- Berriatuko Gazte Asanblada
- Berriatuko Futbol Taldea
- Berriatuko Zesta Eskola
- Berriatuko Txirrindulari Elkarte
- Urepel Kirol Taldea
- Sarats dantza taldea
- Goxalde Elkarte
- Berriatuko Eleiz Abesbatza
- Tarine Musika Eskola
- Goikolau Kultur Elkarte.
- Milloi auzo elkarte
- Asterrika auzo elkarte
- Madalena auzo elkarte



KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

Euskal Herriko eta Bizkaiko ohiko komunikabideez gain, eskualdeko Hitza egunkaria ere badago eskualdean, eta udal aldizkaria argitaratzen du Berriatuko Udalak.

GIZARTE ZERBITZUAK ETA OSASUNEKOAK

ERABILERA KOLEKTIBOKO EKIPAMENDUAK

Ez dago zaharren egoitzarik edo eguneko zentrorik herrian bertan. Mankomunitate mailako egoitzak Markinan eta Ondarroan daude.

	Urtea	Berriatua	Eskualdea	Bizkaia	EAE
Haur Hezkuntzako unitateak 0 eta 2 urte bitartean 100 biztanleko	2021	6,66	6,42	4,59	4,79
10.000 biztanleko banku-bulegoen kopurua	2021	8,11	5,38	4,46	4,57
Farmazia-kopurua (biztanle kopurua)	2021	0,00*	3,84	3,79	3,79
Erreferentziako ospitalera joateko batez besteko denbora (minutuak)	2021	27,30			
Hirugarren adinekoentzako eguneko zentroetako plazak (65 urte eta gehiagoko biztanleak)	2018	11,77	9,16	6,88	9,05
Hirugarren adinekoentzako egoitza-zentroetako plazak (65 urte eta gehiagoko biztanleak)	2018	25,42	41,50	43,13	42,06

10.Taula. Zerbitzuak. Iturria: Udalmap

*Farmazia ez, baina botikina dago herrian

ERRENTA PERTSONALA

Berriatuarren errenta pertsonal osoa eskualdeko batez bestekoaren gainetik dago baina Bizkaia eta autonomia erkidegokoaren azpitik. Hala ere, errentaren hazkundera eskualdea, bizkaia nahiz EAEkoa baino handiagoa izan zen 2019an.

	Urtea	Berriatua	Eskualdea	Bizkaia	EAE
Errenta pertsonal osoa (€)	2019	20.688,00	20.573,00	22.059,00	22.601,00
Errenta pertsonal erabilgarria (€)	2019	17.580,00	17.514,00	18.387,00	18.821,00
Errenta pertsonalaren urteko hazkunde metatuaren batez besteko tasa (%)	2019	4,41	2,23	3,35	3,54
Lanetik eratorritako errenta pertsonalaren ehuneko (%)	2019	61,33	60,06	60,38	60,01

11. Taula. Errenta. Iturria: Udalmap

ESTABLEZIMENDUEI INKESTA

Establezimenduek edadetuak kontuan hartzen dituzten eta edadetuei zerbitzuak egokitzen dizkietn jakiteko inkesta egin zaie herriko ostalari, merkatari eta zerbitzuei. Guztira 14 erantzun jaso dira, horietatik 5 denda, 3 taberna, 4 zerbitzuak eta 2k ez dute jarduera adierazi.

Gehienek euren zerbitzua edadetuentsat egokituta dagoela uste dute, eta egokitu beharko balitz 10etik 7 prest leudeke.

	<i>Bai</i>	<i>Ez</i>	<i>ED/EE</i>
Zure establezimendua edo zerbitzua egokituta al dago edadetuentsat?	%54	%0	%46
1. Establezimenduak ba al du sarbiderik gurgildun aulkirako, ume aulkirako, etab.?	%86	%14	%0
2. Establezimenduak ba al du aulkirik edo atsedeen hartzeko lekurik?	%86	%14	%0
3. Establezimenduak eskaintzen al du laguntzarik zer erosi erabakitzeko edo hain eskura ez dauden produktuak bilatzeko edo horietara iristeko?	%86	%7	%7
5. Establezimenduak ba al du argiztapen egokirik eremu guztietan?	%100	%0	%0
6. Establezimenduak material grafiko egokia al darabil (testu irakurterraza, letra tamaina handia, etab.)?	%64	%29	%7
7. Establezimenduak ba al du laguntza elementurik (ikusmen nekaturako betaurrekoak, lupa, etab.)?	%29	%71	%0
8. Establezimenduak onartzen al ditu telefono bidezko eskaerak?	%100	%0	%0



9. Establezimenduak ba al du erosketara etxera eramateko zerbitzua?	%64	%36	%0
10. Establezimenduak uzten al die bezeroei komuna erabiltzen (ezer kontsumitu edo erosi gabe), eskatzen badute?	%93	%0	%7
11. Establezimenduak egiten al die deskontua talde espezifikoiei (adibidez, langabeei, adinekoei, etab.)?	%7	%86	%7
12. Establezimenduak janaria saldu/prestatzen badu, dieta berezia behar dutenentzako eskaintza ba al du (diabetikoentzat, alergiadunentzat...)	%43	%14	%43
13. Establezimendua edadetuen beharretara egokitzeko prest egongo al zinateke?	%69	%8	%23

MENPEKOTASUNA

2021 urtean 23 dependentzia eskaera berri izan ziren .

Tramitatutako dependentzia eskaerak	Berriatua
Eskaera berriak	23
Berrikuspenak	19
Gizatek: txostenak	11

12. Taula. Dependentzia eskaerak. Lea Artibaiko Amankomunazgoa Gizarte Zerbitzuak 2021eko memoria

TELELAGUNTZA

Berriatua 2021ean 6 lagun ziren telelaguntza jasotzeko alta berria eman zutenak, horietatik gehienak 85 urtetik gorakoak ziren (5). Guztira 17 lagunek jasotzen dute zerbitzua, horietatik gehienak emakumeak dira (14 emakume).

Telelaguntza onuradunak	Emakumeak	Gizonezkoak	Guztira	<65	65-70	71-75	76-80	81-85	>85
Berriatua	14	3	17				2	4	11

13. Taula. Telelaguntza. Lea Artibaiko Amankomunazgoa Gizarte Zerbitzuak 2021eko memoria



ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA JASOTZEN DUTEN BIZIKIDETZA UNITATEAK

Sei lagunek jaso zuten etxeke laguntza 2021ean. Horietatik gehienak emakumeak izan ziren eta 86-95 urte bitartekoak. Bizikidetza unitate batek 5 ordu baino gutxiago jasotzen zituen astean, lauk 5 ordu eta beste batek 5 eta 10 ordu bitartean.

BERRIATUA	2021
Lagun kopurua guztira	6
Emakumeak	5
Gizonak	1
<65	0
65-75	1
76-85	2
86-95	3
>95	0

14. Taula. Laguntza hartzaileak. Iturria: Lea Artibaiko Amankomunazgoa Gizarte Zerbitzuak 2021eko memoria

DIAGNOSTIKOA: EDADETUEN INKESTA ETA EZTABAIDA TALDEEN EMAITZAK


Inkesta bidez eta eztabaida bidez jaso da edadetuen iritzia eta egoeraren berri. Metodologiaren atalean azaldu bezala zortzi alderdi dira aztertutakoak: eraikinak eta aire zabaleko guneak, garraioa, etxebizitza, begirunea eta gizarteratzea, gizaratean parte hartzea, komunikazioa eta informazioa, herritarren parte-hartzea eta enplegua eta gizarte zerbitzuak eta osasunekoak.

Atalez atal inkesten emaitzetatik erazitako alderdi kuantitatiboak batu dira batetik, eta bestetik, parte-hartzaileek bai inkestetan bai talde fokaletan egindako ekarpenak.

46 lagunek erantzun dute inkesta, eta talde fokaletan 11 lagunek hartu dute parte.


PARTE-HARTZAILEEN EZAUGARRI OROKORRAK.

Gizonezkoek baino emakume gehiagok erantzun dute inkesta, parte hartze taldeetan ia pareko ibili dira emakume eta gizon saio gehienetan.



1. Grafikoa. Parte hartzaileen sexua


Adinari dagokionez parte hartze taldeetan eta inkestetan 65-74 adin tartea izan da nagusi, inkestetan ahalegin berezia egin da 80 urtetik gorakoengana iristeko eta euren iritzia jasotzeko, hala ere multzorik txikiena da adin tarte horretakoa.



2. Grafikoa: Parte hartzaileen adina


OSASUN EGOERA

Parte hartu duten gehienek osasun egoera *ona* edo *normala* dutela adierazi dute, %15ak osasun egoera ahula edo oso ahula dutela adierazi du.




3. Grafikoa: Osasun egoera

Adina multzoka aztertuz gero osasun egoera *ahula* dutela adierazi dutenen adin tartea 65-74 da, hala ere, *oso ahula* adierazi duten gehienak 75-84 adin tartean daude.




4. Grafikoa: Osasun egoera adinaren arabera

Inkesta erantzun duten gehienek osasun egoera *ona* edo *normala* dutela adierazi badute ere, emakumeen artean gizonezkoek baino proportzio handiagoak erantzun du osasun egoera *oso ahula* duela, eta aldiz gizonen proportzioa handiagoa da osasun egoera *ahula* adierazi dutenen artean.




5. Grafikoa: Osasun egoera sexuaren arabera

Parte hartzaileen gehiengoak eguneroko bizitza mugatzen dion premiarik edo mugarik ez duela adierazi du.



6. Grafikoa: Premiak edo mugak


Sexuaren arabera aztertuz gero, gehiago dira proportzioan premiari ez dutela adierazi duten gizonezkoak.




7. Grafikoa: Premiak edo mugak sexuaren arabera.

BIZIKIDETZA

Edadetu gehienak bikotekidearekin bizi dira eta ez dago alde handirik. Bakarrik bizi direnen artean gehiengoa gizonezkoak dira, eta beste senitarteko batzuekin edo seme alabekin bizi direnen artean emakumeak dira nagusi.




8. Grafikoa: Bizikidetza



9. Grafikoa: Bizikidetza sexuaren arabera


MAILA SOZIOEKONOMIKOA

Gehienek ez dute erantzun maila sozioekonomikoaren galdera, erantzun dutenen artean gehienek (%24) 900 eta 1600 euro bitarteko diru-sarrera dutela adierazi dute.



10. Grafikoa: Maila sozioekonomikoa


Diru sarrerek generoaren arabera aztertuz gero, erantzun ez duten gehienak emakumeak direla ikus dezakegu, era berean, diru sarrera txikiena dutenen artean, 900 eurotik beherako errentetan (%57) eta 900-1600 artekoetan emakumeak dira talde handiena, aldiz, diru sarrera handienak dituztenen artean (1601etik gora) gizonezkoak dira talde handiena (%67).



11. Grafikoa:Maila sozioekonomikoa sexuaren arabera


BERRIATUA OROKORREAN

Berriatua herri oso atsegintzat dute parte hartu duten gehienek, *erabat* edo *oso atsegina* dela uste baitu %57k.




12. Grafikoa: Atsegina.

Herritarrek herria *nahiko* garbi (%46) edo *oso* garbi (%37) dagoela uste dute. Zaratari dagokionez Berriatua ez dela zaratatsua uste duen taldea da handiena (*gutxi* %30), hala ere *erabat* eta *oso* (*asko*) erantzun dutenak batuz gero beste horrenbesteko portzentajea da emaitza (*erabat* %15 eta *asko* %15).




13. Grafikoa: Garbitasuna.



14. Grafikoa: Garbitasuna.

Herria *nahiko* merkea dela irizten diote Berrituko lautik hiruk.




15. Grafikoa: Merkea


ERAIKINAK ETA AIRE ZABALEKO GUNEA

PARKE ETA BERDEGUNEAK

Herriko parkeak eta berdeguneak behar adina daudela uste dute herritarrek eta *erabat* edo *oso* (*asko*) zainduta daudela. *Nahiko* hornituta daudela uste dute gehienek (%62), baina edadetu gehienak *gutxitan* (%45) edo *batere ez* (%26) direla joaten aitortu dute.(



16. Grafikoa: Parke eta berdeguneak.




17. Grafikoa: Parke eta berdeguneak zainduta

HERRIKO ESPALOIAK, KALEAK ETA ESERLEKUAK

Herriko kaleak zainduta daudela uste dute inkesta erantzun duten gehienek, *oso* zainduta daudela erantzun du %37k eta *nahiko* zainduta daudela erantzun du %33k.




18. Grafikoa: Herriko espaloien egoera



19. Grafikoa: Espaloiak eta kaleak irisgarriak

Irisgarritasunari buruz galdetzean ere *asko* eta *nahiko* erantzunak izan dira nagusi. %42ak uste du *oso* zainduta daudela eta %24ak *nahiko* zainduta. Hala ere *gutxi* eta *batere ez* esan dutenak batuta %29 dira.



